HIRUKIDEN HIRI JOLAS-LEKUAK
Bizikidetza eta errespetua bermatzeko oinarrizko arauak

Hirukideren jolastokiak topaketarako, elkarreraginerako eta laguntasunerako guneak dira. Helburu nagusia da haurrek esperientzia ahaztezina bizitzea eta modu jatorrean dibertitzea, haien oporraldietan, eta gurasoek zerbitzua erabiltzea bizitza pertsonal edo familiarra eta lana kontziliatzeko.

Hori dela-eta, jolastokiak garatu bitartean, espero da haur parte-hartzaileek jarrera adeitsua eta tolerantea izatea besteekiko, arduraz eta ahaleginez heltzea haien egunerokoari, bizikidetza baketsua eta aztura demokratiko eta osasungarriak sustatuta eta materialak eta instalazioak egoki erabilita.

Arauak hautsiz gero, dagozkion neurriak hartuko dira, eta Hirukidek kanporatzeko eskubidea izango du, uste izanez gero sorturiko egoerak modu txarrean eragin diezaiokeela jolastokien garapen egokiari.

BIZIKIDETZA BERMATZEKO OINARRIZKO ARAUAK:

- Ez dira onartuko jolastokietako gainerako haur parte-hartzaileak gogaitzeko, mehatxatzeko, jazartzeko edo baztertzeko jokabideak.
- Ez da onartuko inolako indarkeria-motarik, ez fisikoa, ez ahozkoa (borrokak, kolpeak, txantxa iraingarriak, biraoak, hitz laidogarriak, elkarrizketa desegokiak, etab.).
- Uneoro errespetatuko dira kideak, begiraleak, koordinatzaileak, etab.
- Jolastokiak egoki garatzeko ezarritako ordutegiak errespetatuko dira.
- Jateko eta atseden hartzeko ezarritako ordutegiak errespetatuko dira, begiraleek ezarritakoaren arabera.

Ondokoekin lotutako beste arau batzuk:

INSTALAZIOAK:

- Jarduerak garatzeko erabili beharreko gune bakoitza errespetatuko da, eta jaso ostean hasierako egoera berean utziko da.
- Jolastokietako gune komunen garbiketa orokorrean lagunduko da.
- Komuneko papera ez da alferrik erabiliko, egoki eta neurrian baizik; baita ura ere. Ondasun urria da, zaindu beharrekoa.
- Instalazioetan eragindako edozein kalte edo matxura berehala jakinaraziko zaio begiraleari.
- Erabili beharreko materiala errespetatuko da; horrez gain, jolastokietako instalazioak eta gelak egoki erabiliko dira.

JANTOKIA:

- Jolastokietako begiraleen jarraibideak beteko dira, eta janaria ez da botako.

- Ume bakoitzak jarrera adeitsua izango du begiraleekin eta kideekin; era berean, bere esku dagoena egingo du zerbitzua egoki gara dadin.
- Haurrek ahoa itxita jango dute. Hitz egiteko beharra edukiz gero, ahopeka eta egoki egingo dute.
- Mahai-tresnak eta ahozapiak egoki erabiliko dira, distrakzioak ekidinda, eta haurrak egoki eseriko dira, uneoro jantokiko arauak errespetatuta.
- Begiraleengana joko da unean uneko edozein gatazka sortuz gero, eta haien jarraibideak bete beharko dira.

JARDUERAK:

- Jolastokietan jardueretarako erabiliko diren material eta ekipoak zaindu eta egoera onean edukiko dira.
- Oso garrantzitsua da partaide bakoitzak taldean lan egiten ikastea.
- Jarduerak garatu bitartean, inor ez da taldearengandik aldenduko.
- Igerilekurako txangorik balego, guztiz debekatuta dago buruz murgiltzea, hala nola beste bat itotzeko plantak egitea eta ur-jolas bortitzetan aritzea.
- Partaide guztiek hartu beharko dute parte jardueretan.

BESTELAKO JARRAIBIDEAK:

- Guztiz debekatuta dago baimendu gabeko lekuetan sartzea; horrez gain, ezingo da jolastokietako instalazioetatik inola ere atera, norbere eta gainerakoen segurtasunagatik. Haurrak begirale batek lagunduta atera beharko dira.
- Debekatuta dago jolastokiak garatu bitartean ondokoak erabiltzea: walkmana, eskuko telefonoak, bideo-jokoak, tabletak, etab. Begiraleek eguna bukatu arte gordetzeko baimena izango dute.

Hirukide